

LIFE IREKIBAI Proiektua. Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza. (LIFE 14 NAT/ES/00186)

BILERA AKTA – Lan Taldearen 5. tailerra.

EGUNA: 2018ko maiatzaren 23a LEKUA: Bertizko Jaurerria Parke Naturala ORDUTEGIA: 17:00 -18:15	Bileraren helburua	LIFE IREKIBAI proiektuko lanen jarraipena egitea
---	---------------------------	--

Bertaratuak: 32

Maite	Arzuaga	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	TOKI ONA BHI BERA	Bera
Mª Sol	Taberna Irazoqui	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	TOKI ONA BHI BERA	Bera
Juan Miguel	Almandoz Michelena	Toki Administrazioa	Udalak	ARANTZAKO UDALA	Arantza
Juan Cruz	Iriarte Bañez	Toki Administrazioa	Udalak	BAZTANGO UDALA	Elizondo
Jon	Telletxea Juanenea	Toki Administrazioa	Udalak	BEINTZA-LABAINGO UDALA	Beintza Labaien
Andres	Etxenike Iriarte	Toki Administrazioa	Udalak	BERTIZARANAKO UDALA	Narbarte
María Teresa	Urroz Oyarzábal	Toki Administrazioa	Udalak	DONAMARIAKO UDALA	Donamaria
Miguel Mª	Irigoyen Sanzberro	Toki Administrazioa	Udalak	ETXALARKO UDALA	Etxalar
Xabier	Sarasola	Toki Administrazioa	Udalak	IGANTZIKO UDALA	Igantzi
Jose Mª	Altzuri Bertiz	Toki Administrazioa	Udalak	ITURENGO UDALA	Ituren
Mª Jose	Bereau Baleztena	Toki Administrazioa	Udalak	ITURENGO UDALA	Ituren
Iagoba	Manterola	Toki Administrazioa	Udalak	ITURENGO UDALA	Ituren
José Luis	Echegaray Andueza	Toki Administrazioa	Udalak	LESAKAKO UDALA	Lesaka
Xebe	Txoperena	Toki Administrazioa	Udalak	LESAKAKO UDALA	Lesaka
Ametz	Inda Gorriarán	Toki Administrazioa	Udalak	SUNBILLAKO UDALA	Sunbilla
Amaia	Angulo Rodeles	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkarateak	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Iruña
Ana	Urtasun Idiazabal	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkarateak	Nafarroako Ingurumen Zientzien Elkartea	Iruña
Rafa	Miranda Ferreira	Adituak	U.N.A. adituak	Nafarroako Unibertsitatea	Iruña
Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Pertsona interesdunak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Ana	Altzuri Lasarte	Arrantza	Arrantzale elkarteak	Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkartea	Elizondo
Gaizka	Aranguren	Zerbitzu sektorea	Produktora	Labrit Multimedia	Iruña
Iñigo	Ballarena Galarregui	Industria sektorea	Minihidraulikoak	Balga Energiak, S.L. – URWATTeKo kidea. Navasturengo minizentrala	Elizondo
Miguel Angel	Belza Pérez	Industria sektorea	Errotak	Donamariako errota	Donamaria
Askoa	Ibisate González de Matauco	Adituak	Unibertsitateak	Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saila, EHU	Gasteiz
Cesar	Pérez Martín	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua	Iruña
Nekane	Vizcay Urrutia	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua	Iruña
José	Ardaiz	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua	Iruña
Miguel Mª	Elosegui Iurrtia	Foru Administrazioa	Departamentuak	Natur Ingurunearen Zerbitzua. Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala.	Iruña
Gregorio	Oyaregui	Foru Administrazioa	Departamentuak	Natur Ingurunearen Zerbitzua. Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala.	Iruña
Pedro	Castillo	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña

Luis Ana	Sanz Azcarate	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
	Varela Álvarez	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña

Aztergaiak

17:00 Lan taldearen eta Jarraipen Batzordearen bilera: LIFE IREKIBAI proiektuko lanen jarraipena egitea

- Presak ezabatzearen jarraipena (Ituren/Txaruta). Nekane Vizcay Urrutia. Ibaiek Lehengoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko atala. Nafarroako Gobernua
- Jarraipen geomorfologikoa. Askoa Ibisate González de Matauco. Euskal Herriko Unibertsitatea | UPV/EHU
- Arrain-espezieen jarraipena. Jose Ardaiz Ganuza. Arrantza Kudeatzeko Bulegoa. N.G.
- Bisoi amerikarraren jarraipena, Miguel Mari Elosegui Irurtia. Natur Ingurunearen Zerbitzua. Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala
- Partaidetza prozesuan egindako proposamenen jarraipena. Ana Varela Álvarez. Komunikazio, Parte-hartze eta Prospektiba alorra. GAN-NIK

18:15-21:00 Bisita ibaira, Lan Taldea eta Jarraipen Batzordea

- Azalpen orokorra eta bisitaren aurkezpena: Obrak presetan: Iturengo arrain-haztegi zaharreko presa. Luis Sanz Azcarate eta Pedro Castillo. Uraren alorra. GAN-NIK

Aurkezpenetako aztergaiak

- Luis Sanzek eskerrak eman dizkie parte-hartzaileei bertaratu izanagatik, eta eguneko aztergaiak aipatu ditu; gero, **LIFE IREKIBAI proiektuaren laburpen/oroigarri orokor bat egin du.**
- **Nekane Vizcayk ibaian oztupoak ezabatzearekin** lotuta dauden lanen nondik norakoa azaldu du, LIFE IREKIBAI proiektuaren barnean, eta oroitarazi du lan horiek oso garrantzitsuak direla Kantauriko Natura 2000ko naturguneen kudeaketarako, eta ibai tipologiako Kontserbazio Bereziko Eremuak Kudeatzeko Planen jarduketara-lerro nagusia direla. Batez ere, Iturengo presa zaharra (Ezkurra ibaiko) eraitsi izana azpimarratu, eta ondoren, Donamariako Txarutako erreka bi hasietako baten eraispena azaldu du. **Iturengo presari** dagokionez, lan horren garapenaren laburpena egin du, eta halaber, erran du 2009ko otsailean, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak arrain-haztegirako emakidaren iraungipena jakinarazi zuela, eta aprobetxamendua osatzen duten elementu guztiak Estatuaren eskuetara itzuli zirela, hots, jabari publiko hidraulikoaren barnean daudenak (presa, ur-hartunea eta ubidearen zati bat). Era berean, aipatu du prentsan informazio okerra agertu dela bai presa eraitsi aitzinetik eta ondotik, eta argitu du behar ziren baimen guztiak eskuratuak zirela presa eraisteko, eta presa ez zegoela sartua *Nafarroako Kultur Ondareko ondasun higiezin inbentarioan*; hala ere, eta jasotako azken informazioak ikusita, Kultura Departamentuarekin batera lan egin zen aipatu presaren balioa sakon aztertze. Adierazi du, azkenean, aipatu Departamentuarekin batera, erdiko ostikoa bakarrik kontserbatzea erabaki zela presako bertze elementuren batekin, eta gainerakoa, ezabatzea, horrela konektibotasuna hobetzeko helburuak beteta. Era berean, adierazi du obra bukatu gabe dagoela, eta mantendu den erdiko ostikoa egonkortzeko dagoela, bai eta ertzak ere; gainera, Krainer horma bat egiteko beharra aztertzen ari da. Txarutako erreka hesiei dagokionez, jakinarazi du hegoaldeko hesia 2017ko azaroan hasi zela botatzen, inolako eragozpenik gabe. Iparraldeko hesia, ordea, aztertu egin da, eta begiratu da ea iragazkortu ote daitekeen haren emakida ukitu gabe, baina pentsatu da burtainaren habitatari edo populazioari kalte egiten ahal zaiola, hesitik beheiti ibai-karramarro seinaladuna bizi baita; beraz, ostikoa bere horretan uztea erabaki da. Erantsi du Txarutako erreka burtaina-populazioa Iberiar Penintsulako hiru populazio ezagunetako bat dela, arras hauskorra da, eta galzorian dagoela. [Ikusi aurkezpena webean.](#) Eta sarean ikusgai dauden hainbat txosten:
 - [Endarlatsako Presa eraisteko lanen laburpena \(C6\) 2016](#)
 - [Berako Zentral zaharreko Presa eraisteko lanen laburpena \(C7\) 2016](#)
 - [Txarutako erreka zeharkako hesia ezabatzeko lanen laburpena.\(C9\) 2017](#)
 - [Iturengo arrain-haztegi zaharreko presa eraisteko lanen laburpena.\(C8\). Tarteko Eranskina. 2018ko maiatza](#)
- **Askoa Ibisatek** azaldu du zer lan egin diren Nafarroako Bidasoaren arroko presak eraisteko **jarraipen geomorfologikoan**. Azaldu du 2017an lehen jarraipen geomorfologikoa egin dela, Berako eta Endarlatsako presak 2016ko uda bukaeran eraitsi ondoren, Bidaso ibaian, betiere, eta halaber, Iturengo presa Ezkurra ibaian eraitsi aurreko ezaugarritze geomorfologikoa egin dela; presa 2017ko udazkenean

eraitsi zen. Aurreratu du azken presa hori eraitsi ondoko lehen jarraipena 2018ko udako kanpainen eginen dela, ur handien epealdia pasatu ondoren, eta behin ibaiak bere lan geomorfologikoa egin ondoren bai oinarriko mailako bai maldako baldintza berrietara egokitzeko, eta behin luzera-jarraitutasuna berreskuratu ondoren. Jarraipena ibai-ibilguaren doikuntza geomorfologikoaren azterketan oinarritu da, eta era berean, granulometrian izaniko aldaketetan eta ingurune geomorfologikoen nahiz habitaten identifikazioan. Ikusi [aurkezpena](#) eta txostena:

- Ikusi zabalkunde-txostena webean: [Aldaketa geomorfologikoak tarte lehengoratuetakoa ibai-ibilguan \(higadura, garraio eta sedimentazio prozesuak\) \(D1\). 2018ko maiatza](#)
- **José Ardaizek** azaldu du zer lan egiten ari diren, kontserbazio-lanek (oztopoak eraitea) hainbat arrain-espezierengan (**kolaka, lanproia eta izokina**) dituzten ondorioak baloratzeko, eta oztopo jakin batzuetan egun **arrainendako dauden pasabideen** eraginkortasuna ikusteko; egindako analisiak eta orain arte bildu eta ebaluatutako datuak eman ditu. Nabarmendu ditu, halaber, Bidasoa ibaiko izokin populazioaren bilakaeraren jarraipena egiteko programak, Mendizaintzaren lanari esker, eta Departamentuko eta GAN-NIKeko langileen laguntza teknikoarekin; hau da, ibaian goiti doan populazio ugaltzailearen kontrola egitea eta haien ugalketaren jarraipena egitea, bai eta populazio gaztearen kontrola egitea ere. [Ikusi aurkezpena Webean](#). Eta webean ikusgai dauden hainbat txosten:
 - [Arrainak igarotzeko gailuen funtzionamenduaren ebaluazioa. 2017-2018ko txostena.\(D10\)](#)
 - [Proiektuko ekintzek izokinaren populazioan duten eraginkortasunaren ebaluazioa eta ezaugarriak. 2016-2107ko txostena. \(D9\)](#)
- **Miguel Elosequik** azaldu du zer ekintza egiten ari diren **bisoi amerikarrak eragindako arazoei** aurre egiteko. Izan ere, espezie inbaditzaile horrek bisoi europarraren egoera larria areagotu du (galzorian baitago). Gogora ekarri du zertan datzan Reynolds metodologia (2013); gero, laginketa egindako eremuen ibilbide orokorra eta laburpen bat egin du, era berean azalduta zenbat plataforma eta tranpa paratu diren, eta zenbat ale harrapatu diren, eta orain arte lortutako emaitzak aurreratu ditu. Azaldu du, halaber, zertan den **muturluze piriniotarraren** egoera, Batasunaren intereseko espeziea baita, bere banaketa-eremu guztian gainbehera azkarra izan duena; nabarmendu du zer ebaluazio ekintza egiten diren populazio gune ezagunak kontserbatzeko, eta zer errekerimendu ekologiko dituen espezieak, eta era berean, zein den habitataren kontserbazio egoera; eta nola aztertzeko ari diren muturluze piriniotarraren populazioak, zer metodologia garatu den, orain arte lortutako emaitzak aurreratuta. Ikusi webean ikusgai dauden txostenak:
 - [Muturluze piriniotarraren eta haren habitataren jarraipena. \(Bidasoa ibaiko arroa eta Leitxaran ibaiaren goi-ibarrean\) \(D6\).2017.](#)
 - [Bisoi amerikarraren jarraipena \(C11\) 2017](#)
- **Ana Varelak** labur azaldu ditu Life Irekibai proiektuko **komunikazio-ekintzak**. Eta gogoratu du LIFE IREKIBAIri buruzko dokumentazio guztia [Irekibairen webean](#) dagoela. Halaber, bertaratuak animatu ditu ingurumen boluntariotzako jardueretan parte hartzera, hurrengo asteetan egitekoak baitira eskualde horretako hainbat udalerritan, Life IREKIBAI proiektuak lagundurik. Era berean, oroitarazi du, gaurko saioan bezala, proiektuak dirauen bitartean, jardunaldiak eta tailerrak eginen direla, proiektuko lanen jarraipena egiteko asmoz. [Ikusi aurkezpena webean](#). Ikusi zer lan egin diren [esteka honetan](#)

Webean jardunaldiko argazkiak daude ikusgai, eta saio honetan egindako aurkezpenak ere jaitsi daitezke [hementxe](#)

Galderen txanda:

Ibaiko fauna-espezie batzuen presentziari eta ohiturei buruzko argitasuna bakarrik eskatu da (igaraba, muturluzea; eta espezieei exotikoei buruzkoa: bisoi amerikarra, koipua, arratoi musketaduna...).

Eta saioa bukatutzat jo da 2018ko maiatzaren 23ko 18:15ean, ibaia bisitatzera joateko.

Ondoren ibaia bisitatu zen. Bisitari buruzko argazkiak [hementxe](#) daude ikusgai.